

Famili pobrea

Egun batez bazen famili bat pobrea zena, sei haur bazituzten, ez zuten janari ainitz eta ez zuten diru ainitz.

Beraz, aita eta amak ideia bat atzeman zuten, hau zen merkatura joaitea fruitu eta barazkien saltzeko.

Biharamunean beraz, aita eta ama merkatura joan ziren eta haurrak amatxi eta aitatzirekin egon ziren.

Gauean aita eta ama etxerat itzuli ziren, haien saltegia ez zen anitz jende jin, egunean bost pa sei baizik ez eta hoge euro baizik ez zuten ukan.

Ondoko egunean berriz joan ziren eta diru gehiago ukan zuten, ehun euro, eta dena kondatuz ehun eta hoge euro bazuten.

Hola bukatu zen!



Laida

Bihotz galdua

Behin bazen mutiko bat bakarrik bizi zena zeren eta gaixtoa bilakatzen ahal baitzen. Jakin zuelarik bere aita hila zela triste zen bainan ez zen bisita egitera joan zeren eta edozein mementutan gaixtoa bilakatzen ahal baitzen. Erabaki zuen mutiko baten etxera joaitea bere bihotza aldatzeko. Bere zaintzeko, armada bat muntatu zuen, haien buru Alberto ezarri zuen.

Animaleko trabak gaintitu zituzten Alberto eta bere zaindarien eta mutikoaren etxerat heldu ziren. Erran zion :

« - Zu zira Alberto ? »

« - Bai ni naiz. Zertara jin zira deia ? »

« - Nire bihotzaren aldatzera. »



« - A, bai egia, bainan zendako nahi duzu bihotza aldatu ? »

« - Gaixtoa naizelako beraz zaila izanen da. »

« - Eta orain kexatzen bazira ? »

« - Entseatuko naiz ez kexatzea... »

Ordu bat geroago, berriz joan ziren itsasuntziz, trabak berriz gaintitu zituzten Alberto eta bere zaindarien, eta bere aitaren mezarat joan zen.



Hau hola ez bazan sar nadila kalabazan eta atera Izturitzeko plazan

Ttale

Amatxi gaixtoa

Egun batez bazen amatxi xahar bat. Bazuen seme bat. Aratsero, amatxia joaiten zen herrirat jendeen hiltzerat. Bere semea zerbaitetaz ohartua zen!!!

Gau batean, semeak bere ama segitu zuen eta beste jende batzuk bazirela ikusi zuen. Harri baten gibelean gordetu zen. Ikusi zuen beste emazte bat etortzen karro batekin. Karroaren gainean bazen jende bat zainetan, eta amatxiak hil zuen.

Mutikoa poliziaren xeka joan zen. Polizia etorri zen eta emazteak presondegira eraman zituen! Bukatua!!!



Hodei

Otso hiltzaileak

Euskal Herriko herrixka ttipi batean etxe abandonatu bat bazen eta hartan otso batzuk bizi ziren.

Egunero haur bat nahi zuten jateko, eta laster ez zen haurrik gelditzen, salbu Joanes Borda izeneko mutiko bat hamaika urte zituena. Gerlari ona zen baina bere aitamek ez zuten nahi etxetik joan zedin!!!

Beraz gaua jin zelarik leihotik joan zen, gau osoa korrika iragan zuen eta goiz argian etxe aintzinerat heldu zen.

Emeki emeki sartu zen barnerat, otsoak lo ziren beraz haien arterat lerratu zen, baina arrabots bat egin zuen eta otso guziak iratzarri zituen. Bakar bat ere ez zuen hil, Joanes kakan zen. Mementu batez otso bat aintzinate zuen, haien buruzagia zen eta erran zion :

« -Zer egiten duzu hemen? »

« -Zuen hiltzera etorri naiz!!!! »

Eta otsoak :

« -Ha ha ha ha ha ha ha! Harrapatu mutiko hori, janen dugu ! »

Joanesek eskopeta bat hartu zuen eta denak hil zituen.

Bere herrirat sartu zelarik bere aitamak hilak ziren eta joanes biziki triste zen baina bi urte geroago herriko auzapez bilakatu zen!!!!



Amaiera !!!

Ekhi

Lolo eta Luluren aldaketa

Behin batez baziren bi mutiko Lolo eta lulu deitzen zirenak. Biak pailazoak ziren baina ez zirkokoak, pailazo hiltzaile batzuk ziren. Gau batez Lolo eta Lulu herrixka batera joan ziren, etxe batean sartu eta denak hil nahi zituen Luluk baina Lolok pentsatu zuen eta erran zuen :

« -Hobe genuke ez hiltzea, eta dirua ebastea, euroak eta baldin badituzte suitziar frankoak ere, ados zira enekin ? »

« -Bai denak har ditzagun !!! HAHAAAAHA ! »

Eta urteak eta urteak hola segitu zuten, gazteluetan dena ebatsi aitzin denak hiltzen zituzten. !



BUKATUA!

Ximun

Haurrak eta tigreak


Egun batez anaia eta arreba batzuk kabana batean bizi ziren. Neska Kristalin deitzen zen eta mutikoa Jon. Egunero, kabana garbitu behar zuen Kristalinek baita janaria egin, Jonek egunero arrantzatzen zuen. Ez zuten janari ainitz beraz ez zuten egunero jaten eta gose ziren.

Behin onddo biltzera joan zen oihanera eta tigre handi bat ikusi zuen, oihuka ari zena : « lagunduuu!!!Lagundu mesedez!!! »

Kabanara heldu zelarik, beste tigre batzuk ikusi zituen eta bere arreba bakarrik, triste, beldur, ez zekien zer egin. Atxeman zuen ideia bakarrena hau izan zen : egunero janaria emaita eta ordez bakea emaita tigreek . Tigreen nagusia ados zen eta tigre guziak hasi ziren galdezka : «Nun da janaria !?!? »

Kristalinek arrainak hartu zituen eta sukaldatzen hasi zen. Ordu bat eman zuen arrain guzien egiteko. Horren ondorioz, Kristalinek gorputzean biziki min zuen, Jon saiatu zen kontsolatzera baina ez zuen lortu. Gau hortan, tigreak lo zirelarik, ezpata hartu zuen eta denak hil zituen.

Geroztik Kristalin eta Jon untsa bizi izan ziren.



BUKAERA

Intza

Proiektu tragikoa

Egun hasieran, gizon bat 21 urte dituena, Mick izenekoa. Micken espazio zentroan lan egiten du.: "Bip, bip, bip" egiten du iratzargailuak. Mick haserre iratzargailuren kontra, hartzen du eta botatzen du. Espazio zentroa leku bat da nun suziriak eraikitzen diren. Mick eta bere lankideek proiektu handi bat dute, eta horien proiektua suziri handiena eraikitzea da eta ilargira joaitea. Mick prestatu da eta espazio zentrorat joan da, egun inportanta da, suziria bukatua da eta ilargira joanen dira. Mick ez da bakarrik joanen ilargira, joanen dira ere Samantha, Miguel, Jhon, Daniel, eta Tory. Suziriak 29 684 metro egiten ditu, suziri handiena da. Denak suziri barnean sartu dira, instalatu eta entzun da : « 1,2,3, prest GO!!! » Arrabots ikaragarria egiten du! Suziri barnean diren pertsona guztiek oihi egiten dute!! Bukaeran lortzen dute, baina hor meteorita bat hiper handia lurraren erdia egiten duena ,Miguel mikroa hartzen du eta oihi egiten du : « METEORITA BAT HIPER HANDIA ETORTZEN DA LURRAREN GAINERA ETA GURE GAINERA !! FITE!!! » Espazio zentroak satelitak mugitzen ditu eta hor meteorita hiper handia ikusten dute, erraiten dute : « EZ MUGITU!!! » Baina berehala meteoritak suziria jotzen du eta : « BUM!!! » egiten du, espazio zentroan : « Hemen espazio zentroa !! Erantzun, erantzun !! Hemen espazio zentroa, erantzun !!! Nehor, zer pasatu da ? Jesus lagundu!!! 12 satelita mugitu !!! » Mutiko gazte batek, baietz egiten du buruarekin eta esaten du : « Ikusten di... ditut suziriaren puska batzuk... » Nagusiak esaten du : « 39 satelita mugitu! » Neska batek agindua egiten du eta erraten du : « AAAAA!! Toryren bu...burua ikusten dut eta Mi...guelen gorputza baina ez... du besorik !! » Nagusia desolatua da !! Nagusiak erraiten du : « 14 satelita itzuli !! » Mutiko zahar batek aginduak betetzen ditu eta esaten du : « Hor meteorita handi handi bat !! » Denak pusaka... nahi dute ikusi, denak oihuka, nagusiak esaten du : « Isilik! Filmatu ! » Mutiko ba filmatzen hasten da, nagusia

hasten da : « Egun on, lurra guziari ari naiz, meteorita bat gure gainera dator, ez da txiste bat, ez beldur ukan. Plano bati pentsatu dut, entzun ene plano : lehegailu batzuk botatuko ditugu meteoritaren gainera . Joana, zenbat denbora dugu meteoritak lurrarekin talka egiteko? Joanak xekatzen du eta erraten du : « 3 ordu 31 minuta eta 14 sekunda! » Nagusiak esaten du : « Militarrek deitu, mundu osoan beldur dira... lehegailuak ateratu eta meteoritaren gainera joaiteko programatu! 15 minuta geroago 105 lehegailu abiatu dira meteoritaren gainera, denek gauza bera espero dute : meteorita haustea. Baina lehegailuek ez dute ezer egin : « Ez du ezer egin, fini da, hilko gira! Hiltzeko, ene familiarekin nahiago dut ! » Esan du neska batek. « Arrazoin du, nik ere hiltzeko ene familiarekin nahiago dut ! » segitu du mutiko batek . 2 ordu eta gero, meteoritak lurrarekin talka egiten du, ta BUM entzuten da. Gauza bera gertatzen ahal da lurrarekin, ez ?



Haize

Hiltzailea

Egun batez bazen jende bat Basajaun deitzen zena. Gau hartan, etxe ttipi bat ikusi zuen eta hango haurra ateratu zen. Basajaun lasterka joan zen haurraren xeka eta harrapatu zuen. Gero, basajaunak bere ganibeta ateratu zuen eta hauraren burua moztu zuen. Bere etxera itzuli zen. Lokartu zenean, jende bat jin zen eta burua moztu zion!



Eñaut

Haur galdua

Egun batez amatxi bat josten ari zen eta hondartzara joan zen. Han neska bat nigarrez ari zen, bere ondoan, bere anaia, bere aita eta izurde bat baziren, bainan hilak ziren. Gaixo neskatxa hura ! Han, tatxa beltz bat bazen, pixka bat urrunago gizon afrus eta zikin bat bazen. Gizon hark, neska hari eskuak moztu zizkion, amatxiari ere. Aitatxi bat jin zen eta hil zuen gizon afrus eta zikin hura. Aitatxiaren gibeletik mariñel bat bazen, mariñelak neskatxari erran zion eskuak urean ematea eta gero izurdea, anaia eta aitaren gainean pausatzea. Hala egin zuen eta bere eskuak berriz sortu ziren eta ura eman zuen bere anaiaren, aitaren eta izurdearen gainean, eta bat-batean berriz bihotza piztu eta familia guzia hondartzan zen bizirik. Etxera sartu ziren eta geroztik ongi bizi izan ziren.



Intza

Skar hiltzailearen ixtorioa


Arkeologo pasionatua

Egun batez bazen haur bat, haundituta arkeologo bilakatu nahi zuena. Haunditu zelarik azterketa bat pasatu behar izan zuen bainan ez zuen lortu.

Gordezka joaitea erabaki zuen, beraz gauerditan abiatu zen.

Kobazulo bat atxeman zuen eta oihu batzuk entzun zituen. Beraz sartu zen... Kobazuloan sartu zelarik demonio bat ikusi zuen, demonioak bihotza kendu zion eta hil zuen.

Berria jakin zutelarik, arkeologoaren aitamak biziki triste izan ziren.



Yuri

Egun batez pailaso hilzaile bat instalatu zen herrian eta bere etxearen azpian base bat egin zuen. Armak eta josteko tresna bat erosi zituen eta bere baserat ekarri. Bere izena Skar zen...

Hasi zen lanean, josten, bere armak kargatzen eta joan zen ganibet batzuen erosterat. Eta gaua etorri zen herrian, Skar ekintzari lotu zitzaion eta etxe batetara joan zen diskretuki. So egin zuen ez zuenez nehork ikusten, justu familiako jende bat piztu zen, muttiko ttipi bat zen eta militarrei erran zien ikusi zuena eta inkesta bat hasi zuten. Berriz ere gaua jin zen eta Skar joan zen etxe batetarat, biharamunean militarrek muttiko ttipia hatxeman zuten murru batean lotua eta hila. Skarek telibista so egitean militarrek xekatzen zutela ikusi zuen beraz bere etxe basea haunditu zuen, anitz, eta janari xeka joan zen. Berriz ere gaua herrian ... herri osoa beldur zen eta Skarrek militar batzuk hil zituen eta haien armak hartu zituen, bere baserat itzuli zen.

Biharamunean, militarrek haien lagunak hatxeman zituzten hilak, biziki triste ziren. Skar bere znaperrarekin joan zen jende batzuen hiltzerat. Aireporturat joan zen ondotik, hango jende guziak hil zituen eta hegazkin bat hartu zuen, militarren basean sartu zen eta salto egin zuen parraxuta batekin, tanke batekin eskapatu zen. Aireporturat itzuli zen eta beste hegazkin bat hartu zuen. Aireportura heltzean ainitz jende hil zuen eta berriz ere airatu zen hegazkinez. Bere baserat itzuli zen, denek uste zuten joana zela... Gaua jin zelarik, herriko bi etxetan sartu zen. Biharamunean, militarrek bi familiak hatxeman zituzten hilak, Skar itzulia zela ulertu zuten... Skarek hori ikusi zuen telebistan beraz joan zen.

Geroztik ez zuten nehoiz berriz ikusi.



Jokin

Gorputz hautsia

Egun batez norbaitek polizia deitu zuen bere auzoa oihuka ari zelako. Polizia sartu zelarik arrabotsa entzun zuen sukaldean.

Joan zen sukaldera eta ikusi zuen marmita bat suaren gainean.

Ez zuen marmita ideki eta zuzen eskailerak igo zituen. Ganbera batean so egin zuen, ez zen ezer susmagarririk. Bainu gelara joan zen eta ikusi zuena harrigarria zen. Ikusi zituen bi bazina urez beterik eta barnean gorputz puskak.

Berriz jautsi zen, marmita ideki zuen eta ikusi zuen buru bat odolez betea!!!



Amaiera

Camille

Hiru semeak

LEHEN ZATIA

Egun batez bazen ama bat bazituena hiru haur deitzen zirenak Peio, Piarres eta Patxi, pobreak ziren Patxi ez ezik, hau aberatsa zen eta biziki gaixtoa zen. Pobreei dena hartzen zien.

Baina egun batez, Peio joan zen lan egitera urrun, ihiztaria zen, berriz jin zelarik, etxea hutsa zen, ulertu zuen bere anaia guziak hil zituela. Biziki kexu zen eta oihu egin zuen.

“-Aaaaaaaa!!!Hilen duuuu!!!”

BIGARREN ZATIA

Patxiren etxerat joan zen, zaindaria baziren denetan, beraz igo zen teilaturat eta ke bidetik sartu zen. Baina ez zen inor. Berriz jautsi zen eta ikusi zuen haren autoa joaiten... Peiok salto egin zuen eta korrika joan zen, Patxiren autoaren gibeletik.

“-Fiteago! Fiteago!”

Baina sobera berant zen, Peio sartu zen eta gidaria hil zuen, itzuli zelarik Patxi ikusi zuen hila.



Mattin

IXTORIO MISTERIO LATZ EHUN ZORRI TA BERREHUN PARTZ



4. eta 5. urtekoak ARBEROA IKASTOLA

